

Lehentasun patronala zerga politikan

Bizkaiko Foru Aldundiaren
Foru Arauaren aurreproiektuaren
azterketa



www.ela.eus

ELA
EUSKAL SINDIKATUA

AURKIBIDEA

1. Sarrera.....	4
2. Lanaren errentek eta kontsumoak zerga-sistemari eusten diote, eta enpresek, berriz, gero eta ekarpen txikiagoa egiten dute.....	4
3. Bizkaiko Foru Arauaren aurreproiektuaren elementu berriak eta balorazio kritikoa.....	7
4. Ondorioak.....	9
5. ELAren proposamenak.....	10

1. Sarrera

Joan den ekainaren 12an, Bizkaiko Ahaldu Nagusi Elixabete Etxanobek Bizkairako zerga-arloko hainbat neurri aurkeztu zituen. EAJren izenean egindako aurkezpena izan zen, PSErekin kontatu gabe, nor bere bazkide nagusia den EAeko erakunde gehienetan (Bizkaiko Aldundia barne).

Egun batzuk geroago, Etxanobe bera Madrilera joan zen Bizkaiko fiskalitatearen onurei buruz hitz egitera, atzerriko kapitala eta EAetik kanpoko profesional kualifikatuak erakartzeko helburuarekin. Bilera horretan, Iberdrola, Petronor, BBVA eta Telefónica enpresetako kideak izan zituen lagun Ahaldu Nagusiak. Antonio Garamendi CEOeko presidentek ere parte hartu zuen, eta esan zuen egun batzuk lehenago aurkeztutako proposamen fiskala jarraitu beharreko bidea dela, eta beste lurralde batzuek eredu hoti jarraitu beharko luketeela.

Planteamendu berri horrek 2025eko zerga-erreformaren logikari jarraitzen dio; erreforma hori hiru lurralde historikoetan onartu zen, EAJ, PSE eta Elkarrekin Podemosen akordioarekin. ELAk iaz salatu zuen itunak kapitalaren errenten, enpresa handien eta fortuna handien pribilegio fiskalak bere horretan mantentzen zituela eta fiskalitate progresiboagoa eta birbanatzaileagoa bultzatzeko aukera alferrik galdu zela, etxebizitza, zaintza, trantsizio ekologikoa edo desberdintasun sozialen murrizketa bezalako erronkei aurre egitea ahalbidetuko duena.

Ezin dugu ahaztu zerga politika funtsezko tresna dela aberastasunaren banaketarako eta zerbitzu publikoak finantzatzeko. Hala ere, azken urteetan hartutako neurri fiskalak kenkari fiskalen bidez jokabide enpresarialak edo indibidualak sustatzera bideratuta daude. Alde batetik, politika honek zerga-bilketa murrizten du, horrela gastu publikoari aurre egiteko baliabideak murriztuz. Bestalde, planteatutako neurriek balio izan dute enpresentzat eta kapital-errententzat sistema pribilegiatu bat finkatzeko, berez lan-errentek eta langile-klasearen kontsumoak eusten dioten sistema batean.

Txosten labur honetan, EAeko zerga-sistemaren diagnostiko txiki bat egiten da. Bizkaiko Foru Aldundiak zerga-arloan aurkeztutako neurri berriak ere aztertzen dira eta balorazio kritikoa egiten da, jakinda neurria hauek seguruenik Gipuzkoara eta Arabara ere zabalduko direla datozen hilabeteetan. Amaitzeko, neurri batzuk proposatzen dira gehiago eta modu bidezkoagoan bilduko duen fiskalitate baterako.


2. Lanaren errentek eta kontsumoak zerga-sistemari eusten diote, eta enpresek, berriz, gero eta ekarpen txikiagoa egiten dute

2.1. Zerga-bilketa eta presio fiskala

EAeko zerga itunduen bilketaren bilakaerak erakusten du lan-errenten ekarpena nabarmen igo dela. Lan etekinen atxikipenen bilketa 2018an 5.000 milioi eurokoa izatetik 2025ean 7.540 milioioi izatera pasatu zen, hau da, %51ko igoera. Bestalde, BEZak ere goranzko joera nabarmena izan du, % 33,5 igo baita, 5.835 milioi eurotik ia 7.790 milioi eurora, aldi berean.

Aitzitik, Sozietateen gaineko Zergaren bilketa askoz ere maila txikiagoetan mantentzen da, eta, gainera, bilakaera negatiboa du. 2018tik 2025era 1.476 milioi eurotik 1.438 milioi eurora pasatu zen, hasierako mailaren azpitik ere kokatuz.

Zerga itunduen bilketaren bilakaera EAEn



Iturria: Geuk egina, Ogasun eta Finantza Sailaren datuetan oinarrituta

Bilketaren egiturak joera hori islatzen du. 2025ean, zerga-sarreraren % 37,1 lan-errentetatik zetorren, 2018an baino 5,2 puntu gehiago. BEZa zerga-figura nagusia izaten jarraitu zuen, bilketa osoaren %38,3rekin, eta aldi hasierakoaren antzeko pisuari eutsi zion. Aldiz, Sozietateen gaineko Zergaren partaidetza %9,5etik %7,1era jaitsi zen. Bestela esanda, enpresen irabaziak zergapetzen dituen zergak biltzen dituen ehun eurotik zazpi baino ez ditu jartzen.

EAEko zerga itunduen bilketa osoaren gaineko ehunekoa



Iturria: Geuk egina, Ogasun eta Finantza Sailaren datuetan oinarrituta


Bilketak ekonomiaren gainean duen pisuari dagokionez, presio fiskala deritzona, Europar Batasunean BPGaren %40,4an kokatu zen 2024an, Eurostaten arabera; EAEn, berriz, %31,7ra iritsi zen. Beraz, EB-27ko batez bestekoarekiko aldea ehuneko 8,7 puntukoa izan zen. Diru-bilketari dagokionez, horrek esan nahi du, Europako batez bestekoaren pareko presio fiskala lortu izan balute, euskal administrazioek 7.500 milioi euro gehiago sartuko zituztela 2024an.

2.2. Enpresa-marjinak

Zerga-bilketaren jaitsiera ez da enpresen irabaziak konprimitzearen ondorio. Izan ere, azken urteotako enpresa-marjinen bilakaera nabarmen hedakorra da. 2021etik 2023ra prezioek izandako igoerari esker, energiaren eta tarteko kontsumoen garestitzea konpentsatu ahal izan zen, enpresen irabaziak murriztu gabe. Hainbat sektoretan, dinamika horrek irabazi-marjinak handitzea ekarri zuen, eta, horrekin batera, sortutako soberakinaz gehiago jabetzea.

Enpresa-marjina gordina (diru-sarrerren gaineko EBITDA) %14,09tik % 18,42ra igo zen 2015etik 2024ra, 2023an % 20,85era iritsi zelarik. Hau da, saldutako euro bakoitzeko soberakina sortzeko gaitasuna modu iraunkorrean handitu zen eta pandemiaren aurreko mailetatik oso gora kokatu zen. Era berean, azken errentagarritasuna (diru-sarrerren gaineko emaitza) ia bikoiztu egin zen: 2015eko %7,47tik 2024ko %13,24ra, 2023an %14,17an egon zelarik. Ez da hobekuntza puntual bat, baizik eta egitura-jauzi bat diru-sarrerren proportzioan, azkenean etekin bihurtzen dena.

Hego Euskal Herriko enpresen azken errentagarritasunaren, marjina gordinaren eta lan kostuen bilakaera



Iturria: Azterketa Bulegoak eginda Merkataritza Erregistrotik abiatuta

3. Bizkaiko Foru Arauaren aurreproiektuaren elementu berriak eta balorazio kritikoa

Aurreko erreformetan gertatu den bezala, neurriek zenbait helburu dituzte, hala nola enpresa-errotzea, talentua erakartzea eta banakako jokabide batzuk bultzatzea. 2025eko erreforman bezala, berriro planteatzen dira kenkariak edo zerga-murrizketak, pizgarrien bidez enpresa-erabakiak baldintzatzen saiatzen dira, eta zerga-bilketa murriztuko duten neurriak proposatzen dira.

Hauek dira aurreproiektuaren neurri nagusiak:

- **Bizkaira lekualdatutako langileentzako ("aberriratuak") erregimen berria**

Araubide honen onuradunak zabaltzen dira, betekizunak ezabatzen dira eta etekinen gaineko salbuespena %30etik%50era gehitzen da.

Neurri horrek batez ere kanpotik iristen diren langile kualifikatuei egiten die mesede, ez jada Bizkaian bizi eta lan egiten dutenei; beraz, tratu fiskal desberdina ematen du antzeko errentak dituzten langileen artean.

Era berean, lehia fiskala sor dezake talentua erakartzeko, pertsonaren errotzea nahitaez bermatu gabe.

- **Kenkariak mugikortasun geografikoagatik**

Aurrekoaren ildo beretik, 2.000 euroko gastu kengarri berria planteatzen da (3.000 36 urtetik beherakoentzat) lan-arrazoiengatik Bizkaira joaten direnentzat.

Neurri horrek lehentasunezko tratua ere badakar, jada lurraldean bizi diren pertsonen aldean.

- **Osasun aseguru pribatuarengatiko kenkariak**

Aseguru medikuaren primak %20 kentzea proposatzen du, 300 euroko mugarekin.

Neurri hau osasun pribatuari laguntza zuzena ematea da. Osakidetzak egiturazko arazoak eta inbertsio falta dituen egoera honetan aseguru pribatuen kontratazioa bultzatzea dakar. Ez da harrizkoa IMQ edo Sanitas bezalako enpresek neurri hori txalotu izana eta erakunde publikoek osasun arloan duten borondatea erakusten du.

- **Gimnasio eta jarduera fisikoaren ziozko kenkaria**

%20ko kenkaria proposatzen du, gehienez 200 euro urtean.

Neurri populista da, pertsonen osasuna hobetzeko aitzakiarekin. Eragin birbanatzailea eztabaidagarria da, gimnasioak edo kirol-zentroak ordaintzeko aukera dutenei mesede handiagoa egiten dielako, eta horrek eragin lezake laguntzaren zati handi batek errenta ertain eta handiei mesede egitea.

- **Gauzazko ordainsari salbuetsiak**

Enpresen gauzazko ordainketa batzuetarako salbuespenak proposatzen ditu: enpresak ordaindutako gimnasioak, osasun aseguruak, akzioen edo partaidetzen entrega,...

Onuradunak langileak izan arren, neurri hau bereziki mesedegarria da halako onurak eskaintzeko gaitasuna duten enpresa handietako langileentzat, eta kualifikazio jakin bat duten langileei bideratuta dago batez ere (talentua erakartzeko aurrez aipatutako neurriekin oso bat datorrena).

- **Kenkari berria enpresentzako prestakuntzagarik**

Araua langileen prestakuntzagaritiko kenkariak zabaltea proposatzen du.

Proposamenak enpresen zerga-ordainketa murrizten du, nahitaez soldata-hobekuntzarik edo lan-egonkortasunik eskatu gabe, eta ezer gutxirako balioko du eman beharreko prestakuntzaren gaineko kontrol publikorik ezartzen ez bada

- **Enpresa-transmisioen gaineko hobaria**

- Hobaria ematen zaio familia-enpresa eskualdatzeari

Enpresa-transmisiorako zerga-onurak handitu nahi dira (laugarren mailara arteko senideak barne), eta zuzendariei eta langileei erraztasunak eman nahi zaizkie horiek eskuratzeko.

- Negozioen salmentaren ondoriozko ondare irabaziaren % 30eko salbuespen partziala
- Ondorengotzetako hobariak langileentzat, belaunaldien arteko errelebu-prozesuan ondarean abantailak mantenduz.

Aldundiak deslokalizazioaren aurkako eta belaunaldien arteko erreleboa bultzatzeko tresna gisa aurkezten ditu neurri horiek, baina, hala ere, enpresa-transmisioen gaineko tributazioa asko murrizten dute. Gainera, familia-enpresari eta enpresa-ondareari lotutako pribilegio fiskalak zabaltzen dituzte.

Enplegua mantentzeko baldintzak badaude, baina iraupen mugatua izan dezake (5 urte) lortutako onura fiskalaren aurrean.

- **Etxebizitza: kapital pribatua mugiaraztea etxebizitza soziala sustatzeko**

"Gizarte-intereseko etxebizitza-errentamendua" izeneko figura sortu nahi da, eta epe luzerako Europako inbertsio-funtsen bidez egituratuko da.

Etxebizitza politika zuzentzeko modu honek arrisku asko dakartza. Aldundiak ez du etxebizitza-parke publikoa zuzenean handitzeko asmorik, pizgarri fiskalen bidez kapital pribatua mugiaraztea baizik. Hala, etxebizitza-politikaren zati bat finantza-merkatura eramaten da, inbertsio-funtsetarako diruz lagundutako errentagarritasunak sortzen dira, eta arrisku bat dago: pizgarri publikoek inbertsiogileei mesede handiagoa egitea maizterrei baino.

4. Ondorioak

Bizkaiko Foru Aldundiaren foru arauaren aurreproiektuak 2025eko zerga-erreformaren logikari jarraitzen dio. Kenkari gehiago jokabide enpresarial edo indibidualak sustatzen saiatzeko, diru-bilketa publikoa murrizteko eta langileriak sostengatzen duen zerga-sistema sendotzeko.

Datuek erakusten dutenez, zerga-sarreraren hazkundera ez da enpresen etekinen ekarpen handiagoak bultzatu, soldadak eta kontsumoa kargatzen dituzten zergek baizik. Lan errentek eta BEZak baliabide publikoen igoera ia osoa azaltzen duten bitartean, Sozietateen gaineko Zergak pisu txikia eta beheranzko ibilbidea mantentzen du. Bilakaera hori bereziki esanguratsua da kontuan hartzen bada ekarpenaren beherakada bat datorrela marjinek eta enpresa-errentagarritasunak historikoki maila altuak izan zituzteneko etapa batekin inflazio-fasean, eta 2024an 2019an erregistratutakoen gainetik egoten jarraitu zutenekoa.

Iragarritako neurriek ez dakarte iraultzarik, Aldunditik bertatik iragarri duten bezala. Proposamen sorta bat da, enpresek zerga gutxiago ordain dezaten eta Bizkaitik kanpoko profesionalak erakar ditzaten, gaur egun bertan bizi diren pertsonen baldintza onuragarrietan. Eliteari mesede egiteko neurriak dira, eta ez dute progresibitatearen ikuspegirik, ezta aberastasunaren banaketaren ikuspegirik ere.

Euskal enpresa nagusiekin eta CEOEko presidente Antonio Garamendirekin batera Elixabete Etxanobek Madrilera egindako bidaiak argi erakusten du arau horren norabidea. Elitetik eta enpresa-eliterako neurriak dira. Duela hilabete eskas, CebeK Bizkaiko patronalak ohartarazi zuen fiskalitatea enpresen mesedetan erabili behar zela. Neurri hauek iragarri ostean, Cebekek txalotu egin ditu.

Gainera, proposamenak "race to the bottom" delakoaren bidea irekitzen du, enpresen eta kualifikazio handiko profilen aldeko neurri gero eta hobeetara, neurri fiskaletan beheranzko joera sustatuz. Madrilgo aurkezpena da horren erakusgarri argia.

Ez dezagun ahaztu diru-sarrera fiskalak funtsezkoak direla osasun, hezkuntza, etxebizitza, zaintza edo prestazio sozialen arloan gastu publikoari aurre egiteko. EAEko Aldundiak garatzen ari diren bezalako proposamenekin, gizarte babesaren eredu arriskuan dago. 2027ko aurrekontuei begira, gastu publikoa moderatzeaz hitz egiten ari da, eta hori onartezina da zerga-bilketa murrizten duten neurri fiskalak proposatzen diren bitartean.

5. ELAren proposamenak

Eliteentzako beherantz doan fiskalitate eredu honen aurrean, ELAk fiskalitate progresiboagoa eta aberastasunaren banaketa justuagoa lortzeko neurriak proposatzen ditu:

Errenta handien tributazioa handitzea

- PFEZn progresibitate handiagoa berreskuratzea, lan-errenten eta kapital-errentan dualtasuna ezabatuz
- Errentarik handienentzako tasa marjinal maximoak handitzea
- Batez ere errenta altuei mesede egiten dieten kenkariak eta zerga-onurak berrikustea.

Enpresen etekinen gaineko zerga-arloa handitzea

- Enpresen tributazio efektiboa irabazien %25era igotzea.
- Sozietate handien faktura fiskala nabarmen murrizten duten kenkariak eta mekanismoak erabiltzeko aukerak ezabatzea.
- Lurraldean arteko beherantzko zerga-lehiari aurre egitea.
- Aparteko mozkinen gaineko berariazko errekaruak aplikatzea

Ondarearen gaineko zergak indartzea

- Ondare handien gaineko zergapetzea handitzea.
- Ondarearen gaineko Zerga eta herentzia eta dohaintza handien tributazio zorrotzagoa bezalako figurak mantendu eta indartzea.
- Iruzurri eta zerga-saihesteari aurre egitea

Foru-ogasunen baliabideak indartzea iruzurra jazartzeko

- Zergak artifizialki murrizteko erabiltzen diren enpresa handien, ondareen eta sozietate-egituren gaineko kontrola areagotzea.

Gardentasun fiskal handiagoa

- Zergak nork ordaintzen dituen eta zergadun mota bakoitzak zenbat ordaintzen duen jakiteko informazio estatistikoko gehiago argitaratzea.
- Kontuak ematea eta zerga-onuren ebaluazioa hobetzea.



www.ela.eus

ELA
EUSKAL SINDIKATUA